

EMANTZIPATZEKO OINARRIZKO ERRENTA

1. Eskaera non aurkeztu.

. Iruñean, aldez aurretik hitzordua eskatuta **902 540606** telefonoan edo www.vinsanavarra.es web orrian. Agiriak **VINS**Ako bulegoetan aurkeztu behar dira, Eneko Aritza kaleko 21ean (atzealdea).

. Tuteran, **VINS**Ako bulegoetan (J.A. Fernández kalea, 40, CODES eraikina).

Bi bulegoak zabalik daude astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era arte.

2. Zer laguntza lor ditzakezu?

. **210 euro** hilean alokairua ordaintzeko, gehienez ere lau urtez.

. **600 euroko** mailegua, behin bakarrik, fidantza ordaintzeko. Interesik gabeko mailegua da. Alokairu kontratua bukatutakoan itzuli behar duzu, edo emantzipatzeko oinarrizko errenta jasotzeari uzten diozunean.

. **120 euro**, behin bakarrik, banku-abalaren gastuetarako, baldin eta errentamenduaren berme gisa abala eratzen bada abal-emaile pribatu batekin.

Azken bi laguntza horiek jaso ahal izateko, errentamendu kontratua egiten den egunetik hiru hilabete iragan aurretik eskatu behar dira.

Bateragarritasuna

Emantzipatzeko oinarrizko errenta bateragarria da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 22/1998 Foru Legean etxebizitza alokatzeko ezarritako kenkari fiskalarekin (%15ekoa).

Diru-laguntza hauek eta Foru Komunitateak maizterrentzat ematen dituen laguntzak ezin dira batera jaso.

Errentamendu kontratuak titular bat baino gehiago baldin baditu, hauexek izanen dira diru-laguntzaren kopuruak: zenbatekoak zati kontratuaren titular kopurua (edozein izanik ere diru-laguntza izateko baldintzak betetzen dituzten titularren kopurua edo diru-laguntza eskatzen dutenen kopurua). Hots, alokairu kontratu baterako laguntza da, ez eskatzaileak banaka-banaka hartuta ematen dena.

Diru-laguntzaren iraupena

Gehienez ere lau urtean, diru-laguntza onesteko eskatutako baldintzek beren horretan badiraute, eta betiere 30 urte bete arte.

Eskatzailearen egoeran aldaketarik baldin badago, onuradunak lehenbailehen eman beharko dio horren berri ebazteko eskumena duen organoari, egoera berria kontuan hartuta behar den erabakia har dezan.

3. Baldintzak:

- 22 urtetik 30era bitarte izatea (30 urte bete eta hurrengo hilean errenta jasotzeko utziko zaio).

- Zure bizileku ohiko eta iraunkorrari dagokion errentamendu kontratuaren titularra izatea.

- Urtean 22.000 eurotik beherako diru-sarrerak gordinak izatea.

- Diru-iturri erregularra edukitzea:

Honelakoetan ulertzen da pertsona batek diru-iturri erregularra duela: bere konturako langileak, besteen konturako langileak, prestatzen ari diren ikertzaileak, eta gizarte-prestazio publiko bat jasotzen dutenak (zerga ondorioz gabeko prestazioa edo laguntza-prestazioa), betiere egoera hauetakoren batean daudela frogatzen badute:

. Gutxienez sei hilabeteko lan-bizitza, zehazki eskaera aurkeztu aurreko hilabeteetako.

. Eskaera aurkezten den egunetik, diru-iturria aurreikusia izatea gutxienez 6 hilabetez.

- Espainiako, Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Guneako estatuetako bateko nazionalitatea izatea, edo, Europar Batasunetik kanpoko atzeritarren kasuan, legezko bizitoki iraunkorra Espainian izatea.

- Etxebizitzaren alokairuaren ordainketa eguneratua izatea. Errenta ordaindu eta gero Etxebizitza Ministerioak hileko errentari dagokion diru-sarrera egingen du.

Errenta ordaintzeko modu hauetatik edozein hauta daiteke:

. Lehenbiziko aukera: hileroko transferentzia egitea errentatzailearen kontura, transferentzia agindu iraunkor baten edo aldian behingo transferentzia agindu baten bitartez. Maizter guztiek sinatu behar dute agindua. Kasu honetan, hileko errentaren aldian behingo transferentziak errentatzailearen kontu zenbakira egin behar dira.

. Bigarren aukera: eskatzailearen kontuan helbideratutako ordainagiriaren bitartez ordain daiteke alokairua. Alokairuaren hileko ordainagiriak luzatzen dituen identifikatzen duten IFZ eta atzizkia jarri behar dira laguntzarako eskabidean, bai eta helbideratutako azken ordainagiriaren erreferentzia ere.

Emantzipatzeko oinarritzko errentako laguntzen banku-helbideratzea eta alokairuaren aldiroko ordainketak finantza entitate laguntzaile berean egin behar dira. Onuradunak, hala ere, entitate bereko kontu desberdinak erabiltzen ahal ditu laguntzak bankuan helbideratzeko eta alokairua ordaintzeko.

- Tributu arloko betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan zorrik ez izatea.

4. Baztertze arrazoiak: EZ dute diru-laguntza hauek eskuratzerik izanen:

- Etxebizitzaren errentatzailea odol bidezko edo ezkontza bidezko 1. edo 2. mailako ahaidea duenak (errentatzailea pertsona juridikoa denean, halako harremana duenak bazkide edo kideetako edozeinekin).

- Etxebizitzaren titularrek, honako kasuetan izan ezik: etxebizitza erabiltzerik ez dutenean, edo Ondare Eskualdaketen gaineko Zergari buruzko araudiari jarraikiz etxeari kalkulatzeko balioa araubide orokorreko etxebizitza baten gehieneko prezioaren %60tik gorakoa ez denean diru-laguntza eskatzeko momentuan (titular zareneko herri bereko etxebizitza batez ari gara).

- Ondarearen gaineko Zergaren arabera kalkulaturik, 110.000 eurotik gorako balioa duten ondasun eta eskubideen jabe direnek.

5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

. **Eskabidea, eredu normalizatuaren arabera. Bi ale** aurkeztu behar dira (bata administrazioarentzat eta bestea interesdunarentzat). Inprimakiaren atal guzti-guztiak bete behar dira, kontuan hartuz, zure datuez gainera, **errentatzailearen datu guztiak ere bete** behar direla.

. **NANaren edo AIZren jatorrizkoa eta fotokopia**, edo errentamendu kontratuaren titularra(k) identifikatzeko agiri ofizialaren jatorrizkoa eta fotokopia. Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren kasuan, legezko bizileku iraunkorra Espainian duela frogatzea, Atzerritarraren Identifikazio Txartelaren bidez.

. **Errentamendu kontratuaren jatorrizkoa eta fotokopia** (emantzipatzeko oinarritzko errenta jasotzeko eskubidearen aitortpena behin-behinekoz eskatzen denean izan ezik). Kontratuan gutxienez honako datu hauek jaso beharko dira: kontratatzaileen identifikazio-datuak, errentan ematen den finkaren identifikazioa, hitzarturiko iraupena, kontratuaren hasierako errenta, bermerik eskatu ote den eta alderdiek libreki adostutako gainerako klausulak.

. Finantza entitate laguntzailearen ziurtagiria, batetik, errentariak laguntza kobratzeko erabili behar duen **banku-kontuaren zenbakia** (edo libretaren fotokopia), eta, bestetik, alokairua zein kontutatik ordaindu behar den adierazteko.

. Errentariaren kontuan helbideratutako azken ordainagiriaren fotokopia, alokairua kontuko zordunketaren bidez ordaintzen badu.

Diru-sarrerak frogatzeko, agiri hauek aurkeztuko dira:

1. Kasu guztietan, aurten jasoko diren diru-sarrera gordinen kalkulua adierazi beharko da eskabidean.

2. Azkeneko sei hilabeteotan lan egin dutenek, gainera:

- **Besteren konturako langilea bazara: hartzekoen ziurtagiria**, enpresak emana, azken sei hilabeteotan izan dituzun diru-sarrerak edo dagozkien nominak frogatzeko. Jatorrizko agiria eta fotokopia aurkeztu behar dira.

- **Prestatzen ari zaren ikertzailea bazara, langabeziagatik edo ezintasun edo elbarritasunen batengatik prestazioren bat jasotzen baduzu edo, edo aldian-aldian beste edozein prestazio sozial publiko jasotzen baduzu: azken sei**

hilabeteotako diru-sarrerak frogatzeko balio duen **ebazpen administratiboa edo ziurtagiria**. Ebazpenaren jatorrizkoa eta fotokopia aurkeztu behar dira.

- **Enpresa, lanbide edo arte jardueraren bat egiten baduzu: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena**, azkeneko ekitaldi bukatuari dagokiona. Aitorpenik egin ez baduzu, azkeneko sei hilabeteotan hiru hilabetean behin PFEZren kontura egin beharreko zatikako ordainketak aurkeztu beharko dituzu (FR-2 inprimakia). Jatorrizkoa eta fotokopia aurkeztu behar dira.

3. Azkeneko sei hilabeteotan lan egin ez dutenek:

- **Besteren konturako langilea bazara**: kontratatu zaituen enpresaren edo entitatearen ziurtagiria, lan harremanaren iraupena eta aurten jaso behar dituzun diru-sarrerak adieraziko dituen, edo bestela, indarreko lan kontratua. (dokumentazioaren jatorrizkoa eta fotokopia).

- **Prestatzen ari zaren ikertzailea bazara, langabeziagatik edo ezintasun edo elbarritasunen batengatik prestazioren bat jasotzen baduzu edo, edo aldian-aldian beste edozein prestazio sozial publiko jasotzen baduzu**: urtean jaso beharreko diru-sarreraren berri ematen duen ebazpen administratibo edo ziurtagiria. Jatorrizko agiria eta fotokopia aurkeztu behar dira.

- **Enpresa, lanbide edo arte jardueraren bat egiten baduzu**: Gizarte Segurantzaren autonomo gisa afiliaturik egotearen agiria aurkeztu behar duzu.

Azken sei hilabeteotako lan esperientzia honela justifikatzen da:

- **Gizarte Segurantzaren araubidearen barrenean bazaude**, zure lan-bizitzaren bidez. Guk egiaztatuko dugu zuzenean, eskabidearekin batera eman behar diguzun afiliazio-zenbakia erabiliz.

- **Gizarte-aurreikuspeneko beste araubide batean baldin bazaude**, zure lan-esperientzia frogatzeko agiri bat ekarri beharko duzu (dokumentazioaren jatorrizkoa eta fotokopia ekarri).

- **Etxebizitza baten titularrak diren eskatzaileek jabetza eskrituraren jatorrizkoa eta fotokopia erantsi behar dituzte**, etxebizitzaren balorazio orriarekin batera (balorazioa Ondare Eskualdaketen gaineko Zergari buruzko araudiari jarraituz egin behar da), edo, etxebizitza erabiltzerik ez badute, hori frogatzen duen agiriarekin batera.

6. Abalaren gastuetarako 120 euroko laguntza eskatzen baduzu

Abalaren fotokopia aurkeztu beharko duzu. Laguntza zein finantza entitatetan kobratu nahi duzun, hantxe eskatu behar duzu abala.

7. Oraindik alokairu kontraturik ez baduzu

5. puntuan adierazitako dokumentazioa ekarri behar duzu, alokairu kontratua izan ezik. Agiri horiek laguntza jasotzeko eskubidea behin-behinekoz aitortzen zaizunetik hasita hiru hilabete epean aurkeztu behar dituzu.

8. Laguntzak eskatzeko prozedura

1. Iruñeko bulegoetara dokumentazioa eraman aurretik hitzordua eskatu behar da. Hitzordua eskatzeko, deitu **902540606** telefonora edo sartu www.vinsanavarra.es web orrian. Tuterako bulegoetan ez dago hitzordurik eskatu beharrik.

2. Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztea.

3. Eskabidea eta ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren, Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Departamentuak ebazpena emanen du, gehienez bi hilabeteko epean.

Transferentziaz ordaintzen baduzu eta emantzipatzeko oinarritzko errenta onartzen bazaizu, zure bankura joan behar duzu eta laguntzak emateko ebazpena erakutsi (bankuak laguntza programa honetarako entitate laguntzailea izan beharko du). Alokairuaren ordainketa egiteko, entitate laguntzaileari transferentzia agindu iraunkor bat edo aldiroko transferentzia agindu bat prestatzeko eskatu beharko diozu, maizter guztiek sinatutako idazki baten bidez, ordainketak automatikoki egin daitezten.

Helbideratutako ordainagirien zordunketa aukeratu dutenek alokairua ordaintzeko, baiezko ebazpena lortzen badute, ez diote ebazpena finantza entitate laguntzaileari erakutsi beharko oinarritzko errentaren ordainketa tramitatzen hasteko. Onuradunak bere kontuko zordunketak frogatzen dituzten banku-agiriak Etxebizitza Ministerioari bidali beharko dizkio (Etxebizitzetarako Laguntzen Zuzendariorde Nagusia, Castellana pasealekua, 112, 28046 Madril). Onuradunak abalerako laguntza jasotzeko eskubidea badu, ordea, kopia hori aurkeztu beharko dio finantza entitateari, honako laguntza hau tramitatu ahal izateko.

Laguntza hilabeteka jasoko da. Eskaera egin eta hurrengo hiletik aurrera sortuko da laguntza jasotzeko eskubidea.

4. Jabeari hileroko alokairua ordaindu zaiola egiaztatu ondoren, Etxebizitza Ministerioak emantzipatzeko oinarritzko errenta ordainduko du maizterrak adierazitako kontuan. Kontu hori alokairua ordaintzen den finantza entitate berekoa izanen da.

5. Alokairu kontraturik ez dutenei behin-behinekoz aitortuko zaie emantzipatzeko oinarritzko errenta jasotzeko eskubidea. Aitortzen zaien egunetik hasita, hiru hilabeteko epea izanen dute alokairu kontratu bat aurkezteko.
